




Ziento bat GOIERRITARRA

Arg.: M. Albisu

Kulturgaiak

Santa Maria, 37 - behea
 Tfnoa - Faxe: 88 12 81
 ORDIZIA

Baga - Biga



✓ **Urriak, 11,**
OSTIRALA, ate-
 irekitze ekitaldia

✓ **Urriak 14,**
ASTELEHENETIK
 aurrera guztiontzat
 zabalik

Oporrik onenak
Prezio onenak
Zerbitzu onenak
Deskontu onenak

Urola Bidaiak

IKASLEENTZAKO TARIFA BEREZIAK

- Bidaiatu gurekin eta eraman ezazu dohain telefono mugikor bat 50.000 pezetatik gorako bidai bat kontratatzerakoan



Kale Nagusia, 36
☎ 16 15 46 - 47
BEASAIN

JUBILATUEN KANPAINA



Urria - Azaroa 96

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

Paregabeko
prezioak

KRISTALDUN
BETAURREKOAK

7.500

BETAURREKO
BIFOKALAK

10.800

LENTE
PROGRESIBOAK

17.500



Hurbil zaitez

*Luxozko
barometro
len zozketa*

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp. - ORDIZIA
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2 - EIBAR
Tel. 20 05 22



Kilometroak

30 musika talde, 10 kirol ezberdin,
5 erakusketa, 5 jolas parke, pailazoak, bertsolariak,
erraldoiak, aerobik, dantza saioak, ponyak, iturriak, taloak, sardinak,
erroskillak, ogitaretakoak, patata prejitak, oilaskoak, barkariak, zozkak, edukiak, ...



Elgoibarko Ikastola



Ikastolen Elkartea

Banoa, Banixe

Eurkaraz, bai horixe

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Xabier Urteaga,
Rufino Iraola, Izaskun Salazar,
Josune Amundarain, Koldo
Urrestarazu, Urko Irastorza, An-
tonio Berasategi, Josi Insausti,
Jon Arano eta Nagore Goiburu.

Fotokonposizio eta maketa- zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Maixa Olano soldatzaile CAFen

Gaintzarra da Maixa Ola-
no. 20 urte ditu. Bera da
CAFen ia 100 urtetako
historian, tailerrean lan
egiten duen lehen emaku-
mea. Soldatzailea da. Gi-
puzkoan ere bakarra da.
Uztailan hasi zen CAFen.
Maixak jorratu beharko du
emakumezkoak lan mota
honetan merkatuan sartze-
ko bidea. "Neskak anima-
tu nahi ditut tartetxo hone-
tatik", esan digu.

Goierri REM egiten
hasi zen eta ikasten jarrai-
tzeko gogorik ez zuenez,
soldadura ikasten hasi zen
Maixa. Eskolan neska ba-
karra zen. "Ingurukoek
beti animatu izan naute.
Niretzat ez du ezer supo-
satzen CAFen lehenengo
emakumea izatea, aurretik
ere ohituta bainengoen
klasean-eta beti mutil ar-
tean izaten", adierazi du.

Soldatzaile izateko go-
goa bakarri behar omen
da. "Batzuk zenbait ofizio-
tarako indarra behar dela
esaten dute, baina hori
aitzakia hutsa da, gaur
egun ia dena grua bidez
egiten da eta". Hainbeste
gizonezkoren artean eroso
sentitzen da. Sartu berri-
tan, guztien ahotan ibili
omen zen Maixaren izena.
Hala ere, "nahiko normal
begiratzen" dutela dio.

Esk-Cuis sindikatuak
emandako datuen arabera,
CAFeko langile-plantilan
1.500 bat langile daude;
horietatik 64 dira emaku-
meak. 64 horietatik
inork ez du goi kargurik
edo erantzunkizuneko lan-
posturik. 240 gizonezko
daude ebentual eta emaku-
meak 7. Duela 4 urtez ge-
roztik, emakume bati ba-
karrik egin diote kontratu
finkoa.

BOTA BERTSOA



Joxe Munduate

GOIERRITARRA

*Doinua: Iparragirre abila
dela*

Oso indartsu ez jaio arren
iritzi zera ehunera
GOIERRITARRA izenarekin
irten zinena kalera
hainbat albiste gordin
elkarriketak berdin
ta iritzien aukera
goierritarren sentimentuen
ispilu bihurtu zera.

Etixerik etxe aterik ate
hainbat pertsona zure zai
nahastu xamar gabiltzanean
zuk jartzen gaituzu lasai
ta GOIERRITARRA
bi bertsoren indarra
egileentzat ere bai
urte askoan segi bizirik
besterik ez genuke nahi.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria


Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



ERREZETA



Asier Etxabe
Joxepane ostatua
Zaldibia

ZAPOA LABEAN

Osagaiak: zapoa edo rapea, baratzuriak, oliba olio, piper mina, ozpina, perrexila eta gatza.

Txapa bero-berotan zapoari buelta bat eman, bi aldetatik, kolore piskat emateko. Ondoren, ban-deja batean jarri, ozpina eta gatza bota eta labean sartu.

Errefritoia egin baratzuri, olio eta piper minarekin. Zapoari ateratzen zaion saltsa errefritoari bota, irakiten utzi saltsa loditzeko. Zopari bota dena. Bukatzeko, perrexil pixka bat bota.

AHOLKUA

Esfoliatzea eta hidratatzea: azal berria

arrantzitsuena norberaren azalari ondo dihoakiona aurkitzea da eta erregularatuz erabili metodo egokia.

Zergatik hidratatu?

Hidratazioa makilatu aurretik beharrezkoa da. Azalaren ur tasa garantizatuko du argitasuna, gardentasuna, dirdira eta makilajearen fondoaren iraupena. Hidratante batek azalak galdutako ura (klimagatik, berogailuagatik, aire girotuagatik, haizeagatik, alkoholagatik...) berriz jartzen du eta gainera egunean zeharreko erasoetatik babesten du. Hau da, bere helburua aza-

leko uraren lurrinketa ebittatzea da, azala gazte eta osasuntsu izateko, uraren % 70a izan behar baita. Gogoratu ura dela gizakiaren organismoaren osagarririk garrantzitsuena eta bere ga-bezia osasun faltaren seinale da.

Teknika iraunkorra

Zer gertatuko litzateke goizero hidratante bat emango ez bazenu? Zure aurpegiko larruazalak elastikotasuna eta leuntasuna galduko luke, korneo kapa aldatu eta zimur txikiak nabaritutako lirateke. Fenomeno hauek egunean zehar makilajea hondatuko lukete. Makilatu aurretik beraz, hidratatu. Eta hau epidermis mota guztiek.

Gizartean zabaldutako akats bat dago. Pentsatzen da azal koipetsuek ez dutela hidratante loziorik behar. Ez da egia. Aukeratu behar dutena, hori bai, arazo horrentzat egokia den hidratantea da.



Josune Eskisabel

Estetizista

Esfoliazioa hiru astean behin azalak egiten duen fenomeno naturala da, kapa korneoan dauden hildako zelulak bota eta berriengatik ordezkatzeko duena.

Hala ere, urteak aurrera joateak edo nekaturak edo estresak mekanismoa mantsoitu dezake eta azala asfiziatu eta zahartu egiten da. Bere kolorea hauskara edo zeniziento eta latza bihurtzen da. Azalari tonu distiratsua, leuntasuna eta arnasa hartzea itzuliko dion esfoliazio batekin laguntzeko ordua iritsi da.

Zenbatero esfoliatu behar da azala?

Esfoliazioak azal mota guztietan egiten die on, gaztea izan edo heldua izan. Ga-



- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Teknologia elektrikoa

GOIERRI AKADEMIA

Talde txikiak

✓ INGELESA:

- Maila guztiak
- Ikastaro bereziak (komertziala, azterketa ofizialen prestaketa...)

Kale Nagusia, 32 ☎ 88 82 03 Beasain

✓ MARRAZKETA TEKNIKOAK

Mekanika

Galdaragintza

Plano interpretazioak

Desarrolloak

 **kutxa**

fundazioa
fundación

TXANDAKA

Jakintzu izateko bidean

Heldu zaigu zorioneko ESO (DBH esan beharko dugu orain) eta, itxurak itxura, ni neu ez naiz atrebitzen aurrerapen ikaragarria izango den esatera; eta ni baino gehiago dakien beste asko ere ez. Izan ere, sutan probatzean jakiten baita nolakoa den eltzea... eta, orduan ere, lanak izango dira.

Hezkuntza Sailekoek ez. Garbi hitz egin diete Zaldibiako gurasoei: "eraman zuen neska-mutilak Ordiziara, kalitate handiagoko irakaskuntza izango dute eta". Sinesten ote dute bere esaldi borobila? Beste zerbaitek (legeak, diru eskasiak, ohikeriak... nik al dakit) harapatuta, zer edo zer asmatu behar eta hori bota dute?

Bakoitzak nahi duena pentsatuko du, baina bien bitartean entzun duzu "erreforma hone-tan, ikasleak bere gertuko inguruan txertatuz hezi behar ditugula; leku bakoitzekoek (ikasle bakoitzak ere) trataera berezia izango dutela..." Beharbada, Hezkuntza Sailean pentsatu dute, kalitate eskasagoko irakaskuntzaren alde daudelako nahiko diuztela haurrak herrian Zaldibiako gurasoek.

Eta Hezkuntza Sailekoek ez dute bizitzaren kalitateaz ezer esan. Ikasteak ez du bizitzarekin zerikusirik izango, beharbada.

Antonio Berasategi



GOIERRITARRA irakurtzen al duzu? Zer aldatuko zenuke?



Alaitz Sarasola
21 urte, langabetua
ordiziarra

Harpideduna naiz eta irakurtzen dut. Eskutitzak eta herrietako kronikak irakurtzen ditut batez ere. Kolorearekin asko hobetu du. Ez nuke ezertxo ere aldatuko, ondo dago dagoen bezala.

Iñaki Agirre
60 urte, erretiratua
lazkaotarra

Orain dela 3-4 bat hilabete egin ginen harpide. Hala ere ez dut gehiegi irakurtzen, denborarik ez dut izaten eta. Ondo egoten da, Goierriko berriak biltzen baititu, euskara errazean.



Ane Auzmendi
17 urte, ikaslea
ataundarra

Bai. Batez ere Ataungo kronika eta agenda irakurtzen dut. Musika atala gehituko nioke, Goierriin dauden musika taldeak ezagutzera emanaz.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

VOLVO



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

ZINEA

BEASAIN:

Urriak 17, 'Yeelen' eta 'Pipas' laburmetraia, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN

'Mision imposible' Ostirala 4: 22:15; larunbata 5: 19:30 - 22:15; igandea 6: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Tierra'. Ostirala 4, 22:15; larunbata 5, 19:30 - 22:15; igandea 6: 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30.

'Babe el cerdito valiente'. Igandea, 16:45.



'Yeelen'

La Luz (Mali 1987)

Afrika duela 100 urte. Naturaz gairako botere ezkutuek zuzendutako lur ezezaguna; magia, gizakien patua gidatzen duen jakintza, belaualdiz belaualdi.

'Yeelen' filmean Banbara leinuko gazte bat 'komo' deritzon ezagutza gorena bilatu ari da desertuan zehar. Bidaia eta ihesa, aitzak (aztiak) hil egin nahi baitu, semeak berak adinako boterea hartuko duen beldurrez. Istorio misterio-tsua, argazki diztirsuz eta naturaren hotsez osatutako soinu-banda batez girotua.

Bere 3. luzemetraia honetan, azken lanean bezala, 'Waati' (Denbora, 1995), Souleymane Cissé zuzendari maliarrak agerian uzten ditu bere irudimena eta zinemagintzarako trebetasunarekin batera, afrikar ohitura zaharren ezagutza ere.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Urriak 4, Ordiziako Udal Tailerraren antzezpena Usurbe Antzokian, 20:15etan. Sarrera: 500 pezeta.

Urriak 11, Txalo (lehen Bederen 1) taldearen Agatha Christiren 'La ratonera' antzezlanaren estreinu, Usurbe Antzokian, 22:30etan. Euskaraz. Sarrera: 1.000 pezeta.

Urriak 12, Txalo (lehen Bederen 1) taldearen Agatha Christiren 'La ratonera' antzezlanaren estreinu, Usurbe Antzokian, 22:30etan. Gazteleraz. Sarrera: 1.000 pezeta.

MUSIKA

ZALDIBIA:

Urriak 4, Maixa eta Itziar, 23:30etan.

Urriak 7, Imuntzo eta Beloki, 23:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 6ra arte, Francisco Javier Rojoren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

Urriaren 18ra arte, Mamen Garciaen pintura erakusketa, Aterpe Tabernan.

BARRENA PLASTIKA TAILERRA
MARRAZKI - MARGOKETA
ERAKUSKETA



BARRENA JAUREGIKO ERAKUSTARETOA
ORDIZIA

ORDIZIA:

Urriaren 11a arte, Patxi Epelderen pintura tailerraren erakusketa, Barrean.

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL


AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

HITZALDIAK

BEASAIN:

Urriak 4, grafologia razionala 'persona ezagutzeko erraminta praktiko. Idazkeraren influentzia izakeran', Asmuben 18:00etan.

Urriak 14, 'Elkar entzuteari buruzko hitzaldia. Entzun eta lasaitzeko artea', Asmuben, 17:30etan.

IKASTAROK

BEASAIN:

Urriaren 7an hasita, 'Erlaxaketa eta konzentrazio' ikastaroa. Klaseak astelehenetan 15:00etatik 17:00etara, Asmuben. Matrikula 4.000 pezeta. Izena Asmuben bertan eman behar da.

ORDIZIA:

Liburu aurkezpena

'Orhipean: Gure herria ezagutzen', J.C. Egileor 'Xamar'en liburuaren aurkezpena, Beasaingo Kultur Etxeko Liburutegian, 19:30etan. Antolatzailerak: Kultur Kide.

Urriaren 15ean hasita, Keramika ikastaroa, Barrenan. Astearte eta ostegunetan. 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago Barrenan.

Beasaingo mendizaleak:

MENDI IRTEERAK

Urriak 6, Kilometroak 96. Elgoibarra.

Urriak 13, Helduen martxara irteera (Gasteiz eta Aratz).

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 6, Kilometroak 96, Elgoibarra.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Apalak, mostradorea, kutxaa erregistratzailea, zumitzeko sofa bat, bulegoko mahai eta aulki bat saltzen dira. Informazio gehiagorako 16 12 39 telefonora deitu. Bakarka ere saltzen dira.

☐ Gas gas motorra salgai, Contach 327 zm². 93. urtekoa. Telefonoa 882112. Eguerdietan deitu.

☐ 2 metroko tresilloa salgai. Ia berria. 88 96 87. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

☐ Pastor Aleman arrazako txakurkumeak salgai. 885911. Mikel.

☐ Suzuki RM 125 motorra salgai, 225.000 pezetan. 88 18 02 eguerdian deitu.

Besteak:

☐ Fotokonposizio lanak egiten ditugu. 72 02 95 (Kontxi). Zumarraga.

Etxebizitzak:

☐ Jendea behar da pisua osatzeko Bilbon, Sarriko ondoan. 88 89 10 Mikel.



GOARDIAKO FARMAZIAK

4: Arriola.

5-6: Laurnaga.

7: Urbizu.

8: Atorrasagasti.

9: Azpilikueta.

10: Jauregi.

11: Laurnaga.

12-13-14: Cuesta.

15: Arriola.

16: Urbizu.

17: Atorrasagasti.

18: Azpilikueta.

KiTTó
EDARITEGIA
Iturralde, 1 BEASAIN

AXOLA
JANTZIDENDA
GIZON - EMAKUME - GAZTE MODA
J. M. Barandiaran, 1 ☎ 16 15 65
ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA
KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

- ✓ **ESKOLA LAGUNTZA**
 - ☐ Maila eta arlo guztiak
- ✓ **UNIBERTSITARIOAK**
 - ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
 - ☐ Estatistika eta matematika
- ✓ **OPOSAKETAK**
 - ☐ Osakidetza
 - ☐ Postariak
 - ☐ Justizi administrazioa
- ✓ **KURTSOAK**
 - ☐ Eskola graduatua
 - ☐ LH 1eko titulu ofiziala

☎ 16 01 20
Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN

OIARBIDE
OINETAKOAK
Laskurain, 12 ☎ 65 37 86 TOLOSA
San Inazio, 14 ☎ 16 04 34 BEASAIN



Josi Insausti,
Beasaingo EAko zinegotzia

“Nazio proiektua bultzatzen saiatuko da Eusko Alkartasuna. Horretarako, ezinbestekoa izango da, ordea, abertzaleen arteko elkarlan zintzoa. Eusko Alkartasuna beti egon da prest elkarlan hau bultzatu eta sakontzeko, hori egin ezean geroak ez bailiguke barkatuko herri hau etorkizun gabe uztea”

Hamar urte pasatu dira Eusko Alkartasuna izeneko alderdi berri batek proiektu politikoa euskal gizarteari ezagutarazi zionetik. Zenbat jenderentzat ez da hamarkada bat denbora asko izango, baina politikaren mundua eta bereziki euskal politikaren historia eza gutzen duen edonork jakin badaki zein zaila den proiektu berri bat martxan jartzea eta, are gehiago, proiektu hori finkatu eta sendotzea.

Eta hori da, hain zuzen, Eusko Alkartasunak bere urte hauetako ibilbidean izan duen lorpen handienetako bat. Ez ziren gutxi izan alderdi berria, asko jota, udaberri bateko larrosa izango zela esan zutenak, baina egitasmo baten atzetik gizarteke esparru askotako jende eta taldeen nahia eta, batez ere, herri-gintzarako tresna berri baten beharra ikusten denean, egitasmo horren geroa bermatuta dagoela garbi erakutsi du Eusko Alkartasunak.

Hamar urte igaro direnean, 15.000 kide eta 100.000 botu baino gehiago ditu Eusko Alkartasunak. Horretaz gain, Euskal Herriko lurralde guztietan banatutako ehundaka zinegotzi eta alkatek ere fin asko dihardute herri honi euren ordu eta ahalegin handienak eskeintzen. Azkenik, Eusko Legebiltzarrean, Jaur-laritzan, Nafarroako Parlamentuan, Foru Aldundietan,

Eusko Alkartasunaren X. urteurrenean

Batzar Nagusietan eta Madril-eko Korteetan Eusko Alkartasunak dituen ordezkariak etengabeko lanean dabiltza, gure herri honen geroa ziurtatuko duten ekimenak bultzatu eta aurrera ateratzen.

Hau guztia, proiektu abertzale aurrerakoi eta demokratiko baten inguruan gauzatu nahi du Eusko Alkartasunak. Abertzalea, herri zahar honen —osoaren— geroa ziurtatzeko nazio proiektu baten beharra ikusten duelako, estatu espainiar eta frantziarren baitan gauzatu ezin daitekeen proiektua hain zuzen ere.

Aurrerakoia, XXI. mendearen atarian gizarteak dituen arazo larriei aurre egiteko erantzun aurrerakoien aldekoa delako, oinarritzat elkartasuna duten erantzunen aldekoa. Eta demokratikoa, Eusko Alkartasunak garbi aldarrikatzen duelako giza eskubideen errespetua eta, besteak beste, gehiengoak esaten duenarekiko begirunea ezinbestekoak direlako, edozein proiektuk sinesgarritasuna lortu nahi badu.

Hemendik aurrera ere, bere nazio proiektua bultzatzen saiatuko da Eusko Alkartasuna. Horretarako, ezinbestekoa izango da, ordea, abertzaleen arteko elkarlan zintzoa. Eusko Alkartasuna beti egon da prest elkarlan hau bultzatu eta sakontzeko, hori egin ezean geroak ez bailiguke barkatuko herri hau etorkizun gabe uztea.

Eta barrura begira, alderdia sendotzen ahalegin berezia egingo du Eusko Alkartasunak, inoiz baino garbiago baitu bera izango dela hurrengo urteetan herri honek izango duen ardatz nagusienetakoa. Gazte erakundea sendotu, Alkartetxe berriak ireki, Euskadiko bazter guztietara zabaltu eta erakundetako presentzia areagotu dira, besteak beste, Eusko Alkartasunak hurrengo urteetarako dituen xedeak.

Duela 10 urte, parte hartzen zuen lehen hauteskundeetan, herri honek ilusioa berpiztu beharra zuela zion Eusko Alkartasunaren mezuak. Urte asko pasatu den arren, mezu horren gaurkotasuna begibistakoa da. Eusko Alkartasunak herri zahar honi ilusioa berpiztu nahi dio eta horretarako ez dago nazio proiektu erakargarria eguneroko herrigintzan bultzatzea baino bide hoberik. Horretan dihardu Eusko Alkartasunak.

GEMA
OINETAKOAK

Denboraldi berriko oinetakoak prest ditugu zuretzako

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 88 94 45

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

Eugenio Elorza: erlezain kasualitatez

Erleak ez dira gizon-emakumeentzat aritzen lanean, negua pasatzeko egin izan dute ezta, baina gizakiak tranpa eginez harrapatu ohi die. Gure lana, beraz, erleek behar dutena baino gehiago produziaraztea da”.

Hala dio Segurako Ermaso baserrian jaiotako Eugenio Elorza erlezainak. Erlezaintzarako joera, ez dator- kio bere aurrekoengandik: “Orain 25en bat urte natu- rista batek osasunerako ez- tia gomendatuta, anaiaren lagun baten bitartez hasi nintzen lortzen. Behin, ez- tia neronek sortu behar nuela bururatu, Beheko Pa- naderiko Juanito Telleria- ren bitartez erlea erakartze- ko botika lortu eta, baserri ondoko harkaitz azpian ja- rri nuen nere lehenengo er- launtza. Handik erlakumea jaiota, bigarrena, gero hi- rugarrena, laugarrena... etorri ziren. Ia konturatu ere egin gabe hasi nintzaion erlearen mundu honi gusto hartzen. Ezta ere, gero eta gehiago izatean, familiako- ei, lagunei eta ezagunei ba- natzen hasi nintzaion, azken batean, nere lehenengo be- zeroak izango zirenei”.

Erlezaintzaren ezagutza

Erlezaintzaz gero eta jakin- min handiagoa zuen Euge- niok: “Dakidan gehiena, Soria aldeko erlezain zahar eta jakitsu bati ikasia diot. Hara joaten ginen urtero bakaziotara; urtean zehar izandako zalantza, kezka eta galdera guztiak hari

eramaten nizkion, argi ziezazkidan. Ordu san- tuetan egona naiz bera- rekin. Horrez gain, erle- zain gehiagorengandik, liburuetatik, hitzaldieta- tik, eta azkenean guzti hori praktikan jartzetik joan izan naiz ikasten. Gaur, erlezaleen elkarte- ei esker, informazioa eta laguntza ziurtaturik dute erlezaintzan hasi nahi dutenek. Hala ere, erleez dena jakitera ez garela iritsiko iruditzen zait”.

Eztia, lorearen araberakoa

Kolorea, usaina, gustoa, lodiera... guzti hori lore- aren arabera dago: “Se- guran eta Zerainen ditu- dan erlauntzatarako, ba- tipat milalore eta fruitu- loreetatik jasotzen dute nektarra; margaritetan eta san juan loreetan adibidez, ez dut sekula erlerik ikusi. Goierri al- deko ezta, mehea izan ohi da eta gustoz goxoa- goa. Altzanin eta Araban ere baditut, txilarra da nektar-iturria eta ezta fuerteagoa eta lodixea- goa ateratzen da. Behe- raldean, Andoainin ditu- danetan, akaziatik jasot- zen dute gozoa; ezta ar- gia eta mehea izaten da, gustoz milalorearen mo- dukoa”.

Produkzioak egural- diarekin du zerikusia: “Aur- tengoa, Goierri aldean behintzat, udaberriko ten- peratura aldaketa handie- kin, ez da puntanekoa izan eztiaren ekoizpenerako. Araba aldean, berri- z, hobea izan da. Turmoi- euria eta eguzkia da eguraldirik ego-



Ermaso baserrian, Maiñe mendia atzean duela, Eugenio, buruzorria eta buzua jant- zita, abaska erlauntzatik ateratzen.



Eugenio, espatulaz abaskari azala kent- zen. Ondoren, ezta kentzeko zentrifugado- rean sartu eta iragazkian pasatzen da. 15 egunez zikina gainera atera dakion asen- tatzen utzi eta gero, poteratu.

kiena. Eztaiz gain, argiza- ria eta propolia ere aterat- zen dut”.

Kalitatearen labela

Loreak lore, gustoa gusto, kalitate maila zorrotzak be- te behar dituzte eztizaleek. Hala lortzen dute orain 3 ur- te martxan jarri zen Eztia-

ren Kalitatearen Euskal Labela. Irailaren 11n, euskal jaietan egin zen, hain zuzen, label honen aurkezpena Ordiziako Udaletxean. “Kaleko postuetan jendea proba- ketaz gehiago fidatzen bada ere, labelak, diru- laguntzak jasotzeaz gain, produktuaren merkaturatzea errezten du”.

Merezi gabeko fama

“Jendeak maite ez badu ere, erlea inguruan iza- teak abantaila besterik ez dakar. Bere lana bizi- rik irautea da, eta lan horretan naturari izu- garrizko onura egiten dio: lorez-lore hanketan polena eramanez, hau kruzatu egiten du, poli- nizazioan egundoko era- gina izanez. Adituek diotenez, erlea dabilen tokian uztaren gorakada % 30-40koa ere izan daiteke”.

Parasito bat dela eta, er- leak eta honek eraginda- ko polinizazioak segitu- ko badu, gizakiak es- kuhartu beharra da: “Orain 5 urte Asia alde- tik sartu zen ‘barroa’ deitzen diogun parasito- ak odola zurruputzen die erleei; berriak de- formatuak jaiotzean, eta lanerako balio ez izate- an, gainerakoek kajatik bo- tatzen dituzte. Udaberrian zein udazkenean egiten die- gun tratamenduagatik ez balitz, desagertzeko bidean egongo lirake”.

Joseba Telleria

Plataforma

'El Diario Vasco' egunkariak kaleratutako informazio baten arabera, Ordizia-ko Juanbi Erauskin alkatea, Hernani, Azpeitia, Errenteri, Donostia eta Billabonako alkateekin batera, plataforma bat sortzeko harremanetan daude. Plataforma honen asmoa, "krispazioa murriztu, elkarbizitza soziala eta bakea erraztea" izango litzateke.

Pilar Gabirondo

Ezkio-Itsasoko presoak, beste 20rekin batera, gose greba mugabea dago. Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko ari dira gose greban.

Gudari eguna

Irailaren 27an ospatu zuen KAS-ek gudari eguna. Ekitaldi nagusia, ordea, larunbatean izan zen, Beasainen. "Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan hildako 15 goierritar gudariei" omenaldia eskaini zitzaion.

'Persona non grata'

Beasaingo Udalak Rodriguez Galindo generala 'persona non grata' izendatu du. Azkeneko plenoan, IUK aurkeztutako 5 puntutako mozioari, HBk beste bat gaineratu zion: Guardia Zibilak Euskal Herritik alde egin dezala. IU, HB eta EAK aldeko botoa eman zuten, EAJ eta PP abstenitu



Erretiratuen martxa

Irailaren 28an, Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten ibilaldi neurtua izan zen Beasainen. Gipuzkoa osoko 600 lagunek hartu zuten parte, 11 kilometroko ibilbidean.

egin ziren eta PSE-EEK kontrako botoa eman zuen.

Joxe Uranga

8 urtetan Ormaiztegiko Erretorea izan den Joxe Urangak irailaren 15ean agurtu zituen ormaiztegiarrak, Aitziber Murua kronistak esan digunez. Tolosa izango du bizileku berria. Omenaldian, Meza eta bazkaria izan zen. 160 herritar elkartu ziren bertan. Joxe Urangak bihotz bihotzez eskertu nahi izan ditu ormaiztegiarrak. Urangaren ordean Clemente Zelaia izango da erretore berria.

Bertsolari gazteak

Seguran izan zen irailaren 20 eta 21ean, 'Bertsolari Gazteen II. Topaketa'. Euskal Herri osotik etorritako 70 bertsolari gazte elkartu ziren bertan. Saio alternatiboak edo plaza berriak nola aurkitu; eta gazte txapelke-

tak eta hauek nola berrantolatatu izan ziren hizpide nagusiak. Ordiziako Argi-Berri elkarteak bertsolari gazteekin antolatzen dituen bertso-afariak begi onez ikusi ziren.

Oilasko eguna

Azken orduan jakin duguenez, urriaren 12an, Igo Oilasko eguna ospatuko da Zerainen.

Azoka biologikoa

Irailaren 22an Zerainen izandako Nekazaritza Biologikoaren II. azoka arrakastatsua izan zen oso. Eguraldiaren beldur, pilotalekuan kokatu zen azoka. Antolatzaileen esanetan, 5.000 lagunetik gora pasatu ziren bertatik.


Gaintza

Jakin badakigu aurreko aleko GOIERRITARRA aldizkari honen azaleko argazkiak eztabaida bat baino gehiago piztu zuela. Zein herri ote zen bada? Gaintza



Bertso eskola


Urriaren 9an irekiko ditu ateak Ordiziako Bertsolari Eskolak, arratsaldeko 7etan, Barrena Kultur Etxean. Bertsozale den edonor hurbil liteke ikastaro honetara, baita zaletasunik ez eta bertsotarako grina piztu nahi duena ere. Ariketa ezberdinak landuz, aurten ere gaztedia bertsolaritzara gerturatzea izango da helburu nagusia. Informazio gehiagorako dei 88 52 28 telefonora.



ondoeta

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872 ITSASONDO



Iztuetaren hiztegia kalean

Iztueta Fundazioak beste liburu bat kaleratu du egunotan: "Vocabulario de vascuence". Zaldibiko Juan Inazio Iztueta maisu handiaren beste lan eder bat dugu oraingoan esku artean. Hark 1832 aldera osaturiko eskuizkribu argitaragabea da Santa Fe bezperako egun

hauetan plazaratu den hau. Hain egun seinalatuen bezperan publikatu izan ez da batere modu txarra Zaldibia eta bere semerik ospetsuenari omena eskaintzeko. Julio De Urquijoren bildumako delarik, gaur egun eskuizkribua Donostiako Koldo Mitxelenan dago gordea.

Iztueta Fundazioaren aginduz, Patri Urkizu arduratu da liburuaren moldaketaz eta harena hasieran datorren hitzaurrea. Iztueta Fundazioaren aldetik, berriz, Jose Bernardo Garmendia eta Emeterio Sorazu ibili dira lan honetan buru-belarri sartuta, eta eskuizkribuaren lehen transkripzioa Ataungo Iñaki Rezolak egin zuen. Fundazioak, zuzenean edo zeharka, Iztuetaren gainean ateratzen duen laugarren liburu da.

Berrehun eta hogeita hamar orrialde ditu liburuak. Beharbada, harrigarri samar iritziko diogu garai honetan horrelako hiztegi zahar bat argitaratzea, baina Patriren hitzetan ondo baino hobeto justifikatua dago. Izan ere, orain arte sortu diren beste hiztegiak moldatzeko Iztuetarena begiratu izan bada ere, ez zaio behar besteko garrantzirik eman, nahiz lexiko eta nahiz esamolde aldetik zaldibitarrenak dituen aberastasunak kontuan izanik. Bestalde, ez da falta oihartzun historikorik, ez euskarari buruzko gogotarik.

Unibertsala

Iztueta unibertsal bezala izendatu dute. Bizkaiera eta laputerako hitzak erabiltzen baititu. Gaur egun ere Goierriko hizkeran hain erabilia den -ea bukaera (eroskerea, sorbaldea) eta -au aditz bukaerak (pagau, triskau).

Hona hemen hiztegiari begiradatxo bat eman eta aurkitu ditugun zenbait hitz: 'Alegre, ponerse un poco alegre por el vino = choromorotu', 'A alguna parte = nora-nora', 'Condenado = infernutarra', 'Región = alde erri'.

Jon Aizpurua - Mari Karmen Odriozola

Euskadi Irratiko 'Salako leihoa' irratsaio berriko protagonistak Jon Aizpurua ataundarra (GOIERRITARRAren Ataungo kronista) eta Mari Karmen Odriozola ordiziarra ditugu. Astelehenetik ostiralerara, 14:30etatik aurrera izaten da entzungai.

Kiniela

Irailaren 23an Ordiziako 11 lagun, Compostela eta Sevilaren arteko futbol partidua ikusten adi-adi izan ziren.

Arrazoia, kinielan 14 emaitza asmatu zituztenez, 15ekoaren zain egotea. Sevillaren aldeko emaitza jarri zuten. Ametsa ametsen gelditu zen.

Baga-Biga

Ordiziako Santa Maria kaleko 37. zenbakian, liburu eta disko denda berria ireki da: Baga-Biga. Batez ere euskal gaietan espezializatuko da. Inaugurazio ekitaldia urriaren 11n izango da.

Estreinoa

Txalo antzerki taldeak (lehen Bederen Bat zena) bere azken lanaren estreinua Besaingo Usurbe Antzokian egingo du. Agatha Christiren 'La ratonera', urriaren 11n euskaraz eta 12an gaztelera eskainiko dute,

22:30etan. Sarrera 1.000 pezeta kostako da.

Ordiziako Gaztetxea

Oporren ondoren, hasi dituzte berriro ere Ordiziako Gaztetxean asteroko bileak. Ostiraletan, arratsaldeko 7.30etan izaten dira. Bilerak irekiak dira.

Era berean, Alegiako Gaztetxearekiko elkartasuna adierazi eta mobilizazioetan parte hartzea deitu du Ordiziako Gazte Asanbladak.



Kamixetak

GOIERRITARRA aldizkariaren kamixetak salgai daude. Herri ia guztietan jarriko dira salgai, baina momentuz, gure Ordiziako bulegoan daude. Zaldibiko jaietan ere izango gara saltzen. Bi eratako kamixetak dira: txuriak, beso motzak eta grisak, beso luzeak. Sudadera grisak ere aukeran izango dira. Logotipoa irudian duzuenak.

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24
☎ 88 95 83

LAZKAO

JUANITA ARANBURU
OINETAKOAK

Udazken neguko
moda berriarekin!

Kale Nagusia, 36
☎ 88 01 27 BEASAIN

Heldu da GOIERRITARRA

GOIERRITARRAK 100 ale bete! Ez dira gutxi, ala? Bete-beteak, gainera. Oso 'beteak', 'katoak' ez ginela izango halako saltsetan sartzeko (aldizkari bat sortzeko, 'noiz, eta orain?', zioten 89an) eta 2. zenbakia ere ez genuela aterako igartzen ziguten hilkanpai-joleak ere errendituko al ziren ebidentziaren aurrean. Ze demonstre, mundu guztiak izan du leku aldizkarian eta, bi hitzetan esateko, ez daukala inork inori zer barkaturik. Eta, beno, berandu-xamar bazen ere, gurdira igo dela jendea, printzipalena lortuz, aurrera atereaz gauzea. Portatu dela Goierri GOIERRITARRAekin, eta alderantziz, berriz, zer esanik ez.

Egia esan, atzera begiratu eta bertigoia eta guzti ematen digu. Nola sartu ginen abentura hartan? Hain medio gutxirekin, halako ezezagutzarekin, enbajada enbajadaren gainean, beste batzuk hobeto egingo luketenean... Baina, behin hasi eta segitzea beste erremediorik ez genuenak gu ginen, gogo eta lan ahalmen



izugarriarekin. Sinetsi egiten genuen euskaldungoaren alde lan egin behar zela. Euskaldunberriak sortzen laguntzea eta betiko euskaldunei bazka ematea, alfabetatze-bidean jarriz, jendea irakurzaletzea zen helburua. "Goierri --entelekia hori, zenbait aspektuetan-- egiten saiatzea",...

Usaimena eduki eta bazetorren euskal prentsa lokalaren boomari geure kontribuzioa egin genion. Bideak ireki genituen atzetik zetozenentzat. Ez hutsaren truke, ordea. Ameskaizto mordoia izan genuen, nerbioak jota eta neka-neka eginda ere ibili ginen. Izu-

garrizko nahigabeak eta poz galantak ere bai. Bizi egiten baigenuen. Ez kontutik biziz batzuk usteko zuten bezala. Bidean dexente utzi dugu, 'erre' ere egin gara, baina hori bai, merezi izan zuen.

Iaz, gure hamabostekari hau egin ahal izateko zimentdarriak jarrita joan ginen, kulturaren oinarri sendoak landuta eta gauzak dexente lotuta. Ia ez gara baterre harritzen, bertan naturalidadearekin ematen da Goie-

"Goierriko Aldizkaria kasik ofiziala da (izan gabe), heldu da eta laguntzak behar ditu, bera baita denoi laguntzen gaituena"

erriko berri, 6.000 lagunek hartzen dute (25.000tik gora irakurle; Goierriko euskaldun guztiak eta gehiagok ere ikusiko dute, beraz). Asmatu genuen eta zoriondu ditzaten, berriro, taldekide goierritarrak, lehengoak eta oraingoak.

Denborak arrazoia eman digu, Goierriko herri eta he-

rritarren arteko 'interaktibitate' famatua ikaragarri haundia da. Goierriko Aldizkaria kasik ofiziala da (izan gabe), heldu da eta laguntzak behar ditu, bera baita denoi laguntzen gaituena. Guk jaioarazi genuen eta urreneko urteetan gidatu, baina errelebo gaztea ari da berau hezi eta haziarazten.

Beste 100 ale eman ditzala (gutxienez, gero gerokoak!), orriak gehitu ditzala, edukin gehiagoz --kultura/ irakurketak-eta, oraindik asko dago egiteko-, 'zirkuari' eta gehiegizko informazio hutsalaren uholdeari kasu gehiegi egin gabe.

Nola esan folio batean, zer sentitzen den seme-alaba kuttunagatik? Norberak sortutako mogida, oroitzapenak, nola laburtu? Bukatzeko: nola pultsua hartu goierritarren arteko bizitza eta harreman ezin naturalagoei? Bada, erraza da: heldu den GOIERRITARRAren hurrengo alean gehiago. Edo hurrengoetan.

Jon Mikel Arano

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

*** Ogi integralak**

*** Baserriko ogiak**

Eskuz egindako ogi naturala

Olaberria Kalea, 6

☎ 80 10 66 - 67 22 28 (etxea)

ZEGAMA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



ELOLA

ALTZARIAK


Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01

18 HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa

Eske oneko lantegia

100. GOIERRITARRA kaleratzen dugula eta, geure buruz hitz egiteko aukera ona daukagu. Makina bat lan eman dizkiguten aldizkariak izan dira. Jasotako eske onak ere ugariak izan diren bezalaxe. Eske oneko lantegia baita geurea. Eguneror iristen zaigu handik edo hemendik zorionen bat, eske onen bat, zer esanik ez, hainbat eta hainbat harpide berri (hilabetero 100 harpidedun berri inguru ditugu).



deiak... Hamaika egunetan aritu gara, 12, 13, baita 15 ordu ere lanean. Ondoren jendeak hau eta hura gustora irakurriko duen poxarekin. Beste poz bat ere gustora hartuko genuke, baina hori da beti exkax duguna, dirua alegia. 'Harritzekoa da!' esango du baten batek. Eguneroko erronka hori dugu ordea.

Harpidedunak geroz eta gehiago dira, horrek inprimategi eta posta gastuetan dakarren igoerarekin. Ematen dugun zerbitzua ere ahal den onena izatea nahi dugu, horrek dakartzan medioen behar eta gastuen gehitzearekin. Baina dirulaguntzak, ai ene zoritxarreko dirulaguntzak!, azken urteetan ez dute ez aurrera ez atzera egiten. Eskerrak atzerakorik ez dugun! Goierritar guztion aldizkari honek, guztion laguntzaren beharra du, instituzioen aldetik esfortzu handixeago bat ere eskertuko genuke.

Erakundeen laguntzaz gain, goierritar guztiona ere eskertuko genizuke. Adibide ximplea: hain gustora irakurtzen duzuen inkesta egiten ari garenean, bertan ateratzeko lotsak galdu eta zuen iritzitxo emateko prest agertzea. Zerbait antolatzen duzuenean, gurea hamabostekaria dela gogoratuz,

ahal den azkarren guri berria ematea. Gu beti prest gaude Goierri antolatzen diren ekintzak zabaltzeko. Berdin, edozein iritzi, kolaborazio edo ideia baduzue, lasai jo guregana, ateak zabalik ditugu. Gero alferrik izaten baita informazioen bat atera ez dela-eta keja-tzea.

Zientoa

100. aldizkaria kaleratzeko gehigarri berezi bat ere egin dugu. Bertan 7 urtetan egin den lanaren laburpen txiki bat duzue. Aldizkari bakoitzean kaleratu den gairik interesgarriena dago bertan, ez interesgarri guztiak. Aldizkari bakoitzean hainbat gai interesgarri joaten baitira. Azken urteetako Goierriren pultsoa izan liteke. Etxean gordetzeko moduko dokumentua. Eman digun lana jendeak estimatuko duen itzaropenez egina.

Guk ere 100 zenbakietan zehar laguntzaren bat eman digun hainbat eta hainbat jenderi eskerrona eman beharra dugu. Guztiz ezinezkoa denei lekua egitea. Beraz, eskertutzat har ezazue zuen burua. Baina oraingo honetan, eske berezi bat eman beharrean gaude, zientoa bat GOIERRITARRA aldatzearen lan xelebre hartu duen Bixente Amundarain itsasondorari.

Mikel Albisu - Loinaz Agirre

asmo onarekin lortua dugulakoan gaude. Eguneroko jardunak horrela dio behintzat, inorengana informazio edo kolaborazio eske jotzen dugunean ez dugu garai bateko aurpegi txarrik ikusten, ezta gutxiago ere. Momentu honetan, GOIERRITARRA goierritarren aldizkaria da, geroz eta gehiago gainera.

Lanik ez dugu falta

Irakurle askok ez du jakin-go hamabostero GOIERRITARRA txintxo kaleratzeak eskatzen duen lana. Askotan, argazki kamara bizkarean eta kuadernotxo eskuan, kalean gabiltzanean entzuten dugu: 'ze ondo bizi zeraten, beti paseatzen!'. Ez dituzte ez ikusten, aldizkaria osatzeak ematen dituen buruhausteak, azken egunetako nerbioak, lanak, paper pilatzeak, telefono

Inprimategia
EGUZKI
Nafarroa Etorbidea, 9
88 94 82
BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 88 60 70
BEASAIN

GALDOS
Egurrezko zoruak
Moketak
Sintasolak
Pintura eta barnizatuak
LENZERIA - LURRINDEGIA
Igartzeta Oleta, 12 88 26 89
BEASAIN

ALEMANIAN IZAN DIRA ZALDIBITARRAK SEGAN:

"Lehiaketa baino gehiago jaialdi folklorikoa zen, baina gu badaezpada ere entrenatuta joan ginen"

Aurtengo abuztuan Alemaniara (Enzklösterle herria, Strasburgotik eskubira) izan dira segan zaldibitarak. Zaldibian bizi den Stefan Natke alemaniarraren aitak aldizkari batean irakurri zuen sega lehiaketa edo txapelketaren berri. "Zaldibiatik talde bat sortu behar zela esan zigun Stefanek eta horrela animatu ginen", esan digu Anttoni Irastorza. Joan eta dena irabazi zuten, bai gizonezko, bai emakumezkoetan. Segaren aitzakian, txaranga, trikitaliak, dantzariak eta herriarrez osaturiko autobuskada bat joan zen Alemania aldera.

Hori bai, protagonista nagusiak segalariak ziren. Emakumezkoen taldeko partaideak: Arrate Garin legorretarra, Maixabel Lasa idiazabalarra, Anttoni eta Begoña Irastorza zaldibitarak. Gizonezkoena: Xabier Mendizabal eta Juan Mari Jauregi 'Altzo' zaldibitarak, Juan Mari Agirrezabala lazkaotarra eta Gazteluko Joxe Gabirondo.

Arazorik gehiena emakumezkoen taldea osatzen izan zuten. Legorreta eta Idizabala jo behar izan zuten. Emakumezkoak inoiz

ere txapelketetan segan aritu gabeak ziren. Hilabeteko entrenamentuarekin nahikoa izan zuten denei irabazteko.

"Ez genituen baserriko sega normalak, hemen lehiaketetan ibiltzen dituzten haundi horiek. Inoiz ibili gabe zeuden neskak sega handiarekin", esan digu Altzok. Guztiak baserritar jantziz aritu ziren segan.

Azkar eta txukun

Txapelketa baino gehiago jaialdi folkloriko bat omen zen. "Baina hori bai, talde batzuk txapelketara joan ziren. Zaldibiakoak barne. Gu badaezpada ere entrenatuta joan ginen, zer zen ez baikenekien. Hainbeste kilometro egin eta itxura eman beharra zegoen", dio Altzok.

Gizonezkoen 24 talde eta emakumezkoenak 5 ziren. "Ez genekien seguru zer baloratzen zuten. Mailak

txukun uztea, txukun ebakitzea baloratzen zutela uste genuen eta emakumezko taldeak horixe egin genuen lehenengo egunean. Baina 3. gelditu ginen eta konturatu ginen azkar ebakitzea ere baloratzen zutela eta finalean azkar egin genuen",

"Alemaniako egunkari batek, zaldibitar segalariak 'Formula 1' bezala izendatu zituen"

adierazi du Begoña Irastorza. Hemen sega txapelketak kiloka neurtzen dira. Han lauren artean moztzen dena hemengo aldean oso oso gutxi omen da. Bizkor-

tasuna eta txukuntasuna baloratzen dute. Alemaniako egunkari batek, zaldibitarak 'Formula 1' bezala izendatu zituen.

Era guztietako segak eta teknikak ikusi dituzte. "Gure segekin asko harritu ziren. Atera genituen marmarean aritu ziren, harrituta. Oso serio jarri ziren gure segak ikusi zituztenean. Telebistan ere alde guztietatik hartu zuten gure sega.

Probatu nahi izaten zuten eta nahiko lan izaten zuten", diote zaldibitarrek.

Hori bai, ikusi dutenaren arabera, gehienek, hainbeste makurtu gabe, tenteago



Espedizio guztia, bertako alkatearekin. 9 hilabeteko haurra eta 80 urteko aitona joan ziren autobusean. Bi urte barru itzultzekotan dira.

ZUBI ONDO

TABERNA

☎ 88 28 76 ZALDIBIA



☎ 88 00 44

LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

→ 4 logela, beren bainugelekin
→ Gosari, bazkari eta afariak

Aiestaran erreka

ZALDIBIA



Neskak aurretik sega txapelketetan aritu gabe, nahikoa izan zuten hilabeteko entrenamentua, dena irabazteko.

egiten dute segan. "Kirtena askoz ere luzeagoa zuten, eskubiko eskuarekin heltzen dena ere altuago. Tenteago egiten zuten segan, hemen ibiltzen dugun makurtasun hori ez zen ikusten. Sistema ezberdinekin baina denek altutu egiten zuten kertena. Segea bera ere, hemengoak baino luzeagoa. Aztala finagoa izaten zuten".

Sega pikatzen

Sega pikatzeko txapelketa ere izan zen. Talde bakoitzetik batek hartu behar zuen parte. "Neskak libratu egin ginen, telebistan zuzenean grabatzeko segan aritu behar izan baikenuen. Puntuaketak balio zuen bu-

kaerarako", dio Arrate Garinek.

"Inbento bakoitza ikusten ziren!", dio Altzok. "Sega hankaz gora jarrita, mailuarekin jo beharrean mazetarekin jotzen, oiloa kotan egongo balitz bezala... Nahiko parre egin genuen. Pena piska bat badaukagu orain handik teknika berriren bat ez ekartzea. Baina parre besterik ez genuen egiten".

Desfilea

Desfilea egin behar izan zuten igande arratsaldean, txapelketa bukatu ondoren. "Guri egiten ziguten txalorik gehien. Guk ez geneu-

kan desfilearen berri eta inprobisatu egin behar izan genuen. Altzo-Txiki jarri genuen kantinera bezala. Nahiko parre egin genuen", diote parrez.

Ikusle asko izan omen zen. Tradizio handia dago bertan. Bi urtean behineko topaketa izaten da eta sega izaten da nagusi. "Telebistak zuzenean ematen du, egunkarietan tarte handia izaten du, sega pegatinak, sega txikiak dendetan salgai...", argitu dute. Baviera, Austria, Suitza... denetariko taldeak izan dira. Oso ondo hartu dituzte zaldibitarak bertan. "Denek beraien herrietan egiten diren jaial-



Bertakoei aizkoran egiten ere irakatsi zien.

dietara gonbidatu gaituzte. Hemen zer egiten dugungaldetzen ziguten. Baina hemen momentuz ezinezkoa da horrelako topaketa bat egitea. Diru asko behar da eta antolakuntza ikaragarria. Oso puntualak. Dena dohainik izan da".

Euskaldunak bezala tratatu izan dituzte beti. "Gutaz ematen saiatzen ari diren irudi horrekin izan ohi dugun konplejo hori, ez da horrela. Oso ondo hartu gaituzte. Konplejoa gurea gehiago da. Aukera ona da gure Euskal Herriaren berri emateko. Gazta, sagardoa... eman genien. Kalejiran hasi eta beraiek ere segitu egiten zuten".

Itzultzeko asmoa

Bi urte barru berriz ere itzultzeko asmoarekin daude zaldibitarak. "Oso ondo pasatu dugu eta segan dena irabazi dugunez... Oso esperientzia polita izan da". Zaldibiatik 60 lagun joan ziren. 9 hilabeteko haurretik hasi eta ia 80 urte bitarteko aitonetara. Guztiak oso ondo moldatu omen dira, oso giro ona izan dute.

Loinaz Agirre

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea
Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



JOXEPANE HERRI OSTATUA

Jaiak ospatu
Ostatuko janaria dastatu

☎ 88 20 47
Albisu Etxea

ZALDIBIA

Bi asteburuetako festa

● Urriak 4, ostirala:

19:00etan: Goiztiri txaranga eta buruhandiak.

20:00etan: Mondejuak dastatzeko aukera.

22:30etan: Jubenilen pelota partiduak: Iraola-Eskisabel Mendizabal-Mintegiren aurka. Eta ondoren IV. Zaldibiako pala txapelketaren finala.

23:30etan: Maixa eta Itziar trikitilariak.

● Urriak 5, larunbata:

12:30etan: Gipuzkoako nesken areto futbol txapelketa: Zaldibia-Cynereyna.

13:00etan: Kuadrilen irteera Koskola txarangarekin.

14:00etan: Bazkaria herriko plazan. Ondoren plazan eta txarangak girotuta kuadrilen arteko jokoak.

24:00etan: Izotz musika taldearekin dantzaldia.

02:00etan: Play Back lehiaketa.

Musika amaitzean zezen mekanikoa plazan, gero dantza txapelketa, musika



klase guztietara eta bukaran txokolate jana.

● Urriak 6, igandea:

10:00etan: Diana Tolo-sako dultzaineroekin.

11:00etan: Meza Nagusia herriko koruaren laguntzarekin.

11:45etan: Txalaparta saioa.

Ondoren: Halterofilia saioa. Gero perratokian behi bat perratuko da.

16:00etan: Herritarren II. Auto-krosa.

18:00etan: Iztueta Dan-

tza Taldearen emanaldia.

18:30etan: Pilota partiduak. Jubenilak: Ubera-Albizuri Jauregi-Errandonearen aurka. Afizionatuak: Haritz-Galartza Berraondo-Almandozen aurka.

19:30etan: Trikitilariak kalean zehar.

23:30etan: Etzakit taldearen eskutik dantzaldia.

● Urriak 7, astelehena:

10:30etan: Haurren joko eta jolasak herriko plazan.

11:00etan: Meza Nagusia herriko koruaren laguntzarekin.

12:30etan: Haurrentzat abereen festa plazan, Gorriti bere abereekin.

16:00etan: Haurren festa: Auskalo taldearen eskutik. Tailerrak, moztorroak... Ondoren merienda.

19:30etan: Imuntzo eta Beloki trikitilarien saioa.

23:00etan: Imuntzo eta Beloki.

Oharra: Euskal Herriko Artisautza Tradizionalaren azoka zabalik egongo da.

● Urriak 10, osteguna:

21:00etan: Etxetik eka-rritako janarekin afaria plazan.

22:00etan: El Septeto Santiaguero kubatar taldearen musika emanaldia.

● Urriak 11, ostirala:

18:30etan: Pelota partiduak. Infantilak: Mendizabal-Gurrutxaga Aranburu-Iraetaren aurka. Promesak: Mendizabal-Sukia Olaizola-Berriolaren aurka.

19:30etan: Goiztiri txaranga.

MILA ARRANDEGIA

Zaldibitarak zorionduz
Sta. Fe festa hauetan

☎ 88 90 84

Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA

GANBO, S.A.



ANDERE
lenceria

☎ 88 35 12 - 16 Elbarrena Auzoa, 2
Faxa: 88 35 12 ZALDIBIA



Zaldibiko herriak herriko jaietan
parte hartzeko gonbitea
luzatzen dizue.

ONDO PASA!



23:30etan: Drindots musika taldea.

Oharra: Mozorro gaua denez, mozorrotuta irten.

● **Urriak 12, larunbata:** Askatasunaren eguna.

11:00etan: Presoei oihartzuna iritsarazteko ekitaldia.

11:30etan: Poteo erreibindikatiboa.

16:00etan: 'Euskal Herriak izan behar du, Euskalduna eta Librea' lemapean

Donostian egingo den manifestazioara joateko kotxe karabana.



'Zaldibiko ingurunearen egoera': Argazki Rally-erakusketa.

Ekainetik iraila bitarte Gailurrerantz kirol elkarteko mendi sailak eta Udaleko Ingurugiro-baztordeak antolatu duten 'Baserria eta ingurugiroa: hainbat hausnarketa' ekitaldien artean, Zaldibiko ingurunearen egoera jasotzeko, argazki rally-erakusketa antolatu da. Han eta hemen, 8 zaldibitarrek atera dituzten argazki guztietatik, erakusketarako batzuk aukeratu dira. Egileak: Belen Azketa, Adei Barandiaran, Ana Mari Iraola, Omar Etxeberria, Teodora Nazabal, Aitor Olano, Fatima Asurabarrena eta Belen Irastorza.

Erakusketa urriaren 4tik 12ra arte zabalik egongo da Kultur Etxean. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara. Larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Igandean 12:00etatik 14:00etara.

20:00etan: Amnistiaren ametsa egi bihurtuko dute.

Ondoren: Afaria (ogitartekoak izango dira).

24:00etan: Urrats musika taldearekin dantzaldia.

01:00etan: Manifestazioa.

Oharra: Balkoietan ikurrinak jarri. Ez ahaztu niki erreibindikatiboak jaztea!.

Amaitzeko: Mondejuaren entierroa. Entierroan parte hartzeko lutoz jantzita azaldu.

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez lagunarteko giroa

☎ 88 90 84 Sta. Fe Kalea
ZALDIBIA

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea ZALDIBIA Tfnoa.: 88 28 68

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 88 57 98 ZALDIBIA

ESTANKO taberna

Pintxo bereziak

Festak ondo pasa

☎ 88 28 65 Sta. Fe, 15 ZALDIBIA



Mendi-Ondo etxea
☎ 88 40 57
ZALDIBIA

● **Iturgintza**
● **Berogintza**

Esteban Lasa, 7
☎ 88 80 29
BEASAIN

BEASAIN

Udazken kulturala urriaren 19an hasi eta azaroaren 3an amaituko da. Data berean hasiko da ere 'Loinatz 97', Loinaztar Martinen 400. urteurrenaren inguruan antolatzen ari den mugimendu kulturala. 'Loinatz 97' Kultur Elkartea pasa den urtean sortu zen, otsailaren 5ean ospatzen den Loinaztar Martinen urteurrenaren inguruan hainbat kultur ekintza antolatzeko asmoz. Honen inguruan, kultur ekintzez gain, pedagogikoak, kirolak, giza ekintzak eta erlijiosoak antolatuko dira. Helburu nagusia San Martinen izena goraiatzetik az gain, herria bera ezagutzera ematea eta bere izen ona gordetzea izango da, Goierriko puntu garrantzitsu bezala azalduz. Horregatik, beasaindar guztien laguntza eskertuko lukete antolatzaileek.

Laguntza eskaintzea oso erraza da, edonori dagozkion atalak sortu baitira elkartearen barruan. Atal bakoitza gai bati lotua dago eta herritar guztiengana irekiak daudenez, elkarteko edonorekin edo Udaletxeko Kultur-batzordearekin harremanetan jarritz, edonork eskaini dezake bere laguntza.

'Loinatz 97' ak muina otsailaren 5ean eduki arren, ekintza hasiera 96ko udaz-

Udazken kulturalarekin batera 'Loinatz 97' hasiko da



Hitzak soberan daude. Uda aurretik Igartza Jauregiaren aurkazkia duzue goikoa. Behekoa uda ondoren, auzo-landegian parte hartu duten gazteen lanari esker, geratu dena.

ken kulturalarekin batera hasiko da. Udazken kulturalaren barruan elkarteak prestaturiko ekintzen aurkezpena egingo da eta ospakizun erlijiosoei hasiera emango zaie Parrokian eta San Martingo ermitan.

Ekintza guztiak 1997ko abenduan amaituko dira San Silvestre krosarekin batera, bitartean, otsailan batik bat, ekintzek indar berezia izango dute, eta 97ko udazken kulturalerako Martin Mendizabal

frantziskotar eta historiagileak Loinaztar Martini buruzko liburua aurkeztuko du Beasaingo Paperak bildumarako.

Aurtengo udazken kulturalari dagokionez, Beasaingo Paperak bildumarako CAF enpresari buruzko liburu bat aurkeztuko da; kale antzerkia eta kafe-antzerki ugari izango dugu; azoka berezia; umeentzako ekintzak; kontzertuak; pintura lehiaketa eta argazki rallya; txistulari eguna; eta pasa den alean aipaturiko Aurtzaka Dantza taldeak prestaturiko jaialdia; eta abar.

Beasain Futbol taldea

Irailaren 30etik aurrera, astelehenero, gaueko 10etatik 10.30etara, Beasain Futbol Taldearen berri izango dugu Segura Irratiko Kirol Kantxa irratsaioari esker. Igor Sarriegi eta Dabid Beramendi kazetarien eskutik, asteburuan herriko futbol taldeak eginiko jokoak aztertuko, egunkarietako kronistekin tertulia eta berrientzat jokalariei onena izan dena jakinaraziko dute. Denboraldi bukaeran, jokalariei onenari saria emango zaio. Informazio gehiago 26. orrian duzue.

Izaskun Salazar

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarkeko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN




Disco-Shop

Zure disko denda!

K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76

BEASAIN



OLABERRIA

Bikario-etxea bota dute

Elizaren ondoan zegoen Bikario-etxea bota dute dagoeneko eta lur sail berean etxe berriak eraikitzen hasi dira. Bi etxeetan banatutako 8 bizileku egingo dira bertan. Horrez gain, Belakasoro lur sailean 12 bizileku egin behar dira 6 etxeetan banaturik baina lan hauek oraindik ez dira hasi.

Bestalde, aipatzekoa da Udalak Cecilio-enea etxea erosi duela (Udala eta elizaren ondoan dagoen etxe zaharra). Urteak dira inor bizi ez dela etxe horretan eta Udalak 14 milioi ordaindu dizkio etxearen jabeari. Oraindik Udalak ez dauka garbi etxe horrekin zer egin, agian hurrengo Ohizko Bilkuran jakitera emango dute. Bilkura hau urriaren 10ean izango da.

Berrikuntza gehiago

Herriko hainbat baserri eta etxe elkarrengandik gertu ez daudenez, hauek argitze-ko zailtasunak direla eta, Udalak baserri eta etxe bakoitzaren ondoan farola bat jartzea erabaki du.

Bestalde herriko kaskoan telefono kabina bat jarri da, Ostatu tabernaren ondoan. Honela, gaur egun herrian 3 telefono kabina dauka: gasolindegia ondoan dagoena, lehengo supermerkatu ondoan dagoena eta kaskoan jarri duten berri hau.



Areto-futbola jokatzeko zelaia eraiki da Iurre auzoan. Pasa den irailaren 9an inauguratu zen zelai berria. Kirola egiteko beraz ez dago aitzakiarik, izan ere hainbat kirol egiteko aukera dago: igerilekua, frontoia, 3 tenis pista, 2 squash pista, futbol zelai handia eta orain futboleko aritzeko beste gune bat. Zelai honetan futboleko jokatzeko gain, saskibaloia ere jokatu

ahal izango da, horretarako 2 saski edo kanasta jarri baitira. Udalak kostuaren % 60a ordaindu du eta % 40 Jose Maria Aristrain enpresak. Herriko gazte talde batek hainbat sinadura bildu zituen zelai berri hau egiteko eskatuz Udalarari.

Udazkeneko ikastaroak

Udazken honetarako Udalak bi ikastaro antolatu ditu, pintura ikastaroa eta ha-

rizko ikastaroa. Pintura ikastaroa, urriaren 14an hasi eta abenduaren 16an amaituko da; astelehenetan arratsaldeko 4.30etatik 6.30etara. Olivia Sanchez izango da irakaslea.

Harizko ikastaroetan panpinak, gantxiloa, makrame eta abar egiteko aukera izango da. Ikastaro urriaren 15ean hasiko da baina bilera bat egiteko asmoa dago urriaren 8an, bakoitzak bere lana aukeratzeko gain, behar den materiala jaso dezan. Ikastaro hau asteartean izango da, arratsaldeko 5.30etatik 8.00etara eta irakaslea Iñaxi Urreaga izango da.

Bi ikastaro hauetako bakoitzagatik 1.000 pezeta ordaindu beharko dira. Izenematea gaur amaitzen da, udal idazkaritzan edo liburutegian egin dezakezue.


Alberto Irastorza

Bildotxaga baserriko Alberto Irastorzak bi bigarren sari lortu zituen pasa den irailaren 11n. Ordiziako ferrian. Goierriko abeltzain txapelketan hartu zuen parte eta maila hauetan irabazi zituen bi sariak: 3 eta 5 urte bitarteko behiekin eta 5 urtetik gorako behiekin.

Nagore Goiburu

1.010 biztanle

1.010 pertsona bizi gara gaur egun Olaberrian. 1991an baino 112 pertsona gutxiago. Auzoei begirada bat emanez, Iurre auzoko Cari de la Cruz eta Poblado Jose Mari Aristrainen jaitsi da gehienbat populazioa. Honela, lehenengo kalean 53 pertsona gutxiago bizi dira eta bigarrenengoan 68 pertsona gutxiago. Gainera eta Errekalde auzoetan ere populazioa jaitsi egin da, Aranguren auzoan mantendu eta beste auzoetan populazioak gora egin du. Emakume eta gizonezkoen dagokionez, 524 gizonezko bizi dira herrian eta 486 emakume.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

SEGURA

Zinea 20 urte geroago

1976ko martxoaren 28an bota zen azken pelikula ("La isla de los desaparecidos"), lehen zinema zen eta gaur emisorako garajea dagoen aretoan. 1961eko azaroaren 21ean hasi zen Juan Zabala "Barbero txiki" filmeak ematen, eta bera aritu zen 16 urtetan, 467 pelikula proiektatu zituen; guztiak, izenburuak eta datak, apuntatuak ditu. Gaur, guraso batzuren ideaz, Herri Eskolako "Haitz-lehor" guraso elkarteak, negu parteko jai arratsaldeetarako zine emanaldiak antolatu nahian ari da neska-mutikoentzat. Udala, Kultur Etxeko areto nagusia uzteko eta pantaila zein proiektorea inguratze-ko prest azaldu da. Gurasoei, jai arratsaldeetan, txandaka, haurren ardura hartze-ko konpromisoa eskatu zaie. Datarik aurrikusi ez bada ere, hau guztia bideratuta, lehenbailehen espero da zine emanaldiekin has-tea.

Barnetegiak aterpetxean

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatuta, "Euskal Giroitze Barnetegiak" antolatu dira lehenengo aldiz "Aingeru Zaindaria" aterpetxean. Pasa den irailaren 16an hasita, San Joanak aldera arte, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 40 ikastetxe eta 850en bat neska-mutiko dira pasatze-koak. Helburua, ingurune erdaldunetako edozein ikastetxetako ikasleen artean euskaraz komunikatzeko ohitura sendotzea da, eskolako testuingurutik kanpora eta jolas giroan. Horretarako, talde bakoitzak ekarriko duen bere irakasleaz gain, 4 begirale dituzte, horietako



Irailaren 27an hasi zen gabonak ondoren arte iraungo duen sardinzar denboraldia Antonkalenen. Iazko prezioan, bakoitza 40 pezetan dago salgai. Bertan jan nahi izanez gero, berri, Bittor Agirrek olio eta baratxuriek nahiz prejittuta, ederki asko preparatzen ditu.

bat Josetxo Ugalde, asteko programaketak antolatu eta aurrera eramateko. Barnetegi mota hauek orain 12ren bat urte hasi ziren; Segurakoa bosgarrena da. Bertan, "D" eredu-ko Lehen Hezkuntzako 3, 4 eta 5. mailako haurrak (9-11 urte) arituko dira. Astelehenetik ostiralera eta astero, ikastetxe bakoitzeko 30en bat haur pasako dira.

Barnetegikoek solairu bakarra dute hartua. Beste solairua, oso osorik, Foru Aldundiak egiten duen eskaintzarentzat dago irekia.

Musika Eskola

Udalak antolatuta, irailaren erdi aldera hasi zen ekainera arte iraungo duen bigarren musika ikasturtea. 3 urtetik gorako 40 lagun matrikulatu dira, horietatik 4 helduak. Beheko eskoletako garai bateko maixuen etxebizitzan, egun eta ordutegi ezberdinetan, "Hezkuntza Musikala" ematen da alde batetik eta akordeoia, trikitixa eta gitarra bestetik.

Txistuko klaseek, berri, urrian hasita ekainera arte

iraungo dute, astean 3 egunez.

Ingelesa

Iruñe Etxeberriak ematen dituen ingeleseko klaseez aparte, urriaren 7an hasita ekainerarte, 5 taldetan banatuta, 7-12 urte bitarteko 22 neska-mutikok hasiko dute ingeleseko ikastaroa Zurbano kaleko 14an, arratsalde eta iluntzetan.

Kilometroak eta Nafarroa Oinez

Urriaren 6an Elgoibarrera-ko eta 13an Etxarrirako autobusak antolatu ditu Elorri Kultur Elkartek. Irteerak, goizeko 9:00etan, plazatik. Autobus txartelak, 1000 pezetan, aurrez erosi behar dira Elorri tabernan.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

-**Infantilak:** Ordizia 1-1 Aizkorri.

-**Kadeteak:** Aizkorri 2-1 Miren Bihotza.

-**Jubenilak:** Segura 3-0 Idiazabal.

-**Errejonialak:** Kilimon 3-1 Segura.

Asteburuan etxean:

-**Infantilak:** Aizkorri - Eibartarra, zapatuan 15:45etan.

-**Errejonialak:** Segura - Antoniano, zapatuan 17:15etan.

Labur labur

● **Segurako Gazte Asanbladak** antolatuta, irailaren 28an, mendi irteera egin zen Barbari aldera.

● Antzeko gehiagoren artean, **kilo erdiko zanaorie** atera dute Kortaberriko baratzean Lardizabalдарrek. Elorri tabernan dago ikusgai.

● Ikortan eginda, lehenengo aldiz jarri dituzte salgai **mondeju zuriak** Aranburu harategian.

● **Kirol irratsaio berria** hasiko da Segura Irratian, Goierriko kirolaz. Informazio gehiago 26. orrialdean.

● Iazko denboraldian Las Palmasen ibili ondoren, aurtun Ceutan jokatu du **Luixito Garmendiak**.

● Lierniko proba ziklistaren alde ateratako **errifaren zenbaki sarituak**, irailaren 16tik 20ra 719, 638, 651, 318 eta 424 izan ziren.

● Udalak eskatutako **Madurako bariantearen proiektua** aurkeztu zieten udaletxekoei urriaren 4an Diputazioko teknikoei. Udaletxean, egin nahi den bariantearen bi proiektu azaldu zituzten. Aurrerantzean, emendakinak egiteko epea zabalduko da, ondoren proiektua onartuko litzateke eta azkenean konkurtsora atera.

Joseba Telleria

IDIAZABAL

Internet sarearen erabiltzailerak gure herriaren berri jakiteko moduan daude. Hemendik gutxira Idiazabali buruzko informazioa azalduko da ordenadore bidezko komunikabide horretan.

Idiazabalgo argazki bat eta gure herriari buruzko hitz batzuk ikusi eta irakurtzeko aukera izango da mundu zabalean. Alkatearen argazkia eta udaletxeko telefonoa ere agertuko dira Internet-en.

Udazkeneko ikastaroak

Kultura-batzordeak soinketa eta eskulan ikastaroak antolatu ditu datozen hilabete-etarako. Soinketa saioak aste honetan hasi dira eta ekainera arte iraungo dute.

Eskulan ikastaroei dago-kienez, aukera zabala dago: zeramika, taila, saskigintza,

egurrean dekorazio eta errestiturazio lanak, argazkigintza eta hari lanak. Ikastaro batzuk hasita daude eta besteak ondorengo egunetan jarriko dira martxan.

Zirika irratia

Udako atsedenaldiaren ondotik urriaren 4an hasiko da lanean berriro ere Zirika irratia. Aurreko ikasturtean bezala larunbat eguerditan izango dira saioak, ordubatean hasi eta hirurak arte.

Herritarren batek irratian aritzeko gogorik balu larunbateko saioetara azaltzea besterik ez du.

Xabier Urteaga

Gure herria Internet-en



Gazte bazkaria

Irailaren 28an egin zen gazte bazkaria, Gazte Asanbladak antolaturik. Umore ona nagusi izan zen. Trikitri doinuak laundurik, makina bat kanta eta dantza egiteko aukera izan zen. Bazkalondoren, aulki dantza ere egin zen. Umeak baino okerrago, denak aulkiaren bila. Azkenean irabazlea, Lierni Galarraga izan zen, finalean Iñaki Alberdi baino lehen eseri baitzen aulkitxoan.

Herriko kaleak umorez bete zituzten gazteek, GOIERRITARRA aldizkarirako argazkia ateratzeko "posatu" ondoren.

LEGORRETA

Irailaren 28an eman zioten herriko mutilek hasera areto-futbol ligako beraien lehen ibilbideari, Azkoitia. Neskek 3. denboraldiari ekingo dioten bitartean, aurtengoa izango mutilen lehen esperientzia federatu bezala. 3. mailan jokatu badute ere gorago igotzeko esperantzarik ez dute galtzen. Hala ere, denborarekin ikusi beharko da zein toki dagoen eta noraino hel

daitezkeen.

Honako hauek dira taldeko jokalarien izenak: Nivar-do, Iban Zunzunegi, Kupe-la, Txikito, Eñaut, Kakus, Iñaki Oiarbide, Jabi Mujika, Urko Etxeberria, Eneko Guerrero, Aitor Ibañez eta Angel. Entrenatzaile lane-tan Sabino eta delegatu Mar-riano.

Esan beharrik ez dago herritarren animorik behint-

Futbola nagusi

zat ez zaiela faltako. Zorte on.

Neskek bestalde, denboraldi atarian Lazkaoko tor-neoa irabazi berri dute. Ba-dirudi beraz denboraldia sa-soi betean hasteko moduan daudela, ea sari gehiago irabazten duten.

Euskara ikastaroa

Urte sasoi honetan ohiko den bezala, Udalak Euskara ikastaroak antolatzeko as-

moa du. Hori dela eta, ihar-duera horretan parte hartu nahi duen oroko Udaletxe-ko bulegoetan izena eman beharko du urriaren 4a baino lehen, bere interesekoa izango litzatekeen ordutegia eta maila adieraziz.

Josune Amondarain



88 55 00 ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ATAUN

HBkoei elkarriketa



G.- Zer ondo ta zer gaizki Alkatetzan daudenek?

E.- Gure ustez aurreko Udalen martxa darama honek ere. Oposiziokoei informazio gehiegirik ez. Zuzenean jaso beharrekoa, kaletik askotan. Beste tratamendu bat exijitzen dugu. Informazio asko jaso gabe gelditzen gara.

G.- HBri botoa eman zieten 492 ataundarren Alkate da Aitor?

E.- Derrigorrez onartzen dugu. Hauteskundeetan alderdi botatuena izan ginen eta eskubidez guri zegokigun. Alkatetza HBren aurkako hitzarmena egin zen eta orain ere berdin jarraitzen dute. Argi esaten dugu, Alkatetza lapurtu egin zigitela.

G.- Akordioak posible al dira Alkate-makilarik gabe?

E.- Akordioak izan dira, San Gregorioko Frontoia, Aiako aterpe, espalo eta abarretan. Akordio zabalagoa nahi bada, hasierakoa aldatu egin behar da. Hala ere, saiatu egin beharko dugu akordio gehiago lortzen. Azkenean borondate kontua da, guk 4 boto ditugulako eta Alkatetzan daudenek 5.

G.- Zer egin behar da "ur-jentziaz" herrian?

E.- Guk, hauteskundeetan atera genuen Herri Programari eusten diogu. Udala

Herrira lema bete behar da. Derrigorrezkoak dira, etxebizitzak. Egingo dira batzuk baina proiektu guztiak bultzatu eta erreztu behar ditu Udalak. Auzoetako beharrak bete. Aiako aterpea egin, espaloiak Gabillenetik Arrondora, eta abar. Eta beste gauza bat: ur eta zabor zergak ez dira igo behar, ematen den zerbitzua ez delako ona. Zergak asko igo dira, zerbitzua ondu gabe. Baserri askotan, kilometroak egin behar izaten dituzte, basura-ontziraino. Etxe ondoan daukanak bezala ordaindu behar al du?

G.- Ze lehentasun HB bezala?

E.- Iazko apirilean ETAk kaleratu zuen Alternatiba Demokratikoa. Mundu guztiak ezagutu behar du. Bakea, eskubideak eta askatasuna lortzeko oinarriak jartzen ditu. Herri guztia inplikatu behar da, herritarrek izango dutelako beti azkeneko hitza. Honetan denok hartu behar dugu parte eta horretarako Amnistia preso, errefuxiatu eta deportatu guztientzat.

G.- Urtebete barru ze Ataun ikusten du HBk?

E.- Zerbitzu eta turismo herri bihur liteke, bakarrik kanpokoei begira. Ia dena kanpokoentzat pentsatzen da. Herriaren nortasunari

eutsi behar zaio: Eskola mantenduz, bertako lanbide, nekazari, artzantza eta abar bultzatuz eta lagunduz. Bestela bere nortasuna gal dezake herriak, kanpokoei baka-rik begiratzen badie.

G.- Besterik bai?

E.- Ezin ahaztu gehien so-

fritzen ari direnak: preso, errefuxiatu eta deportatuak... Gaur egun daramaten borroka. Alderdi asko ari dira orain sakabanaketaren aurka deklarazio interesatuak egiten. Benetako borondaterik ez dago.

Jon Aizpurura



Agur Ubarri edo Tallerre etxeari. Irailaren 19an bota zuten etxebizitza eta aroztegi izan zena. Ugaria izenez agertzen da XVIII. mendean eta Ubaria 1809an. Orain bota dutena 1939an egin zuten. Etxe berriak egiteko proiektua dago.



Adio Altzanipe Futbol-zelaiari. 1965ean eraiki zuten herritar guztiek auzolanean. Aurreko larunbatean jokatu ziren azkeneko partidua. Bertan noizbait futboleko aritutako ia 200 lagun elkartu ziren. Batzuk ia 60 urtekoak, beste batzuk 9 urtekoak, egun zoragarria pasa zuten. Etxebizitza berriak doaz laster.

LAZKAO

Giro ezin hobea San Mielelan



Azken urteetan Lazkaon ohiko bihurtzen ari den automodelismo proba, hilaren 22an egitekoa bazen ere, San Miel egunez ospatu zen. Jende ugari inguratu zen plazara, kotxe hauek eta pelota txapelketako finalak ikustera.

Joan den asteko igandean San Miel egunarekin batera amaitu zen urtero garai hone-tan egiten den aste kulturala. Azkenengo alean aipatu ge-nizuen bezala, aste osoan ekitaldi ugari izan dira he-rrian, hauetako asko gainera arrakasta osoz burutu dira.

Giroa berotzeko hilaren 21ean, larunbata, sagardo dastaketa izan genuen herri-ko plazan. Hasiera batean jende askorik hurbildu ez ba-zen ere, arratsaldeak aurrera egin ahala giroa animatuz jo-an zen; aipatzekoa zen jada afalaurretik sagardoa dastat-zera bildu zen jende multzoa eta honela afalgarairako sa-gardo guztia agortu egin zen.

Edatea dena ez denez, Lazkaoko talogileek beren jaki preziatua prestatzen ari-tu ziren arratsalde osoan ze-har denon gozamenerako; ta-loak ohiko salneurrian baino

merkeago zeudenez ilara handiak sortu ziren talogile-en aldamenetan.

Asteartean, berriz, gazte-txoentzat marrazki arratsal-dea antolatu zen, hainbat ma-rrazki egin eta gero, ongi me-rezitako saria jaso zuten hau-rrek, txokolate beroa hain zuzen.

Gaztetxoekin jarraituz, asteazkenean 'street-basket' izenez ezaguna den saskiba-loi txapelketa burutu zen pla-zan. Partaideak bi mailatan banatu ziren beti ere adina kontuan izanik. 10 urte bitar-teko gaztetxoaren artean 8 tal-de aritu ziren lehian eta 'Or-lando'-ko lagunak irten ziren garaile, finalean 'Chicago' taldea gainditu eta gero. 10 urtetik 16 urte bitartean, be-rriz, 6 talde izan ziren lehia-kide eta txapeldunak 'leop!!' taldekoak izan ziren; bigarre-nak, berriz, 'Lazkao Magic'-

ekoak.

Ostiralean amaitu zen bestalde irailan zehar jokatu-tako nesken arteko II. Areto Futbol txapelketa. Bertan partaide izandako taldeak Lazkao, Ataun, Idiazabal, Beasain, Ordizia, Legorreta eta Zaldibia izan ziren. Fina-la ostiralean jokatu zen Ataun eta Legorretaren arte-an, emaitza 2 eta 1 izanik Le-gorretaren alde.

Larunbata parrandazale-entzako eguna izan genuen. Herri afaria giro ezin hobean igaro zen eta afalostean ere Triki beltz taldeak alaiturik gau alaia igarotzeko aukera izan genuen lazkaotarrok. Festaz gain, euskal presoen

aldeko bi "ekintza" egin zi-ren: ostiralean suzko barrika-da jarri zuten eta larunbate-an, herriko ertzain baten au-toa erre zuten.

Azkenik hilak 29, igan-dea, San Miel eguna, jubila-tuei zuzenduriko eguna izan zen batik bat. Hamabietako meza nagusiaren ondoren Ataungo 'Victor' jatetxera abiatu ziren herriko heldue-nak bazkari goxo batez go-zatzeko asmoarekin.

Ekitaldi hauez gain, beste hainbat izan ziren aste kultu-ralean zehar osagarri.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu

Arkaitz eta Andoni etxean

Irailaren 26an, ostegun eguerdian iritsi ziren Lazkaora he-riko bi mendizale gazte hauek. Gogoratuko duzuen ez abuztuaren erdialdera, beste 3 goierritar eta elgoibartar ba-tekin Himalaya aldera abiatu ziren India iparraldean dago-en Satopanth (7.075 m) mendi erraldoia igotzeko intentzio-arekin. Baina zoritxarrez beraien ametsa hutsean gelditu da ez baitute posible izan tontorreraino iristea.

Egia esan eguraldia ez zuten lagun izan. Garai honetara-ko normalean amaiturik egoten den monzoialdia aurten lu-zatu egin zaie eta honexegatik edozein garaitan elurra ma-ra-mara egiten zien, igoera oztopatuz. Hala ere saiatu gabe ez ziren itzuli, baina elurraren biguntasunak eta kantitateak eragotzi eta oztopatu egin zituen saiakera guztiak.

Hasieratik bertatik ez zitzaizkien gauzak batere ondo jo-an, bisatuarekin arazoak izan baitzituzten, baita kontratatuta zeukaten sukaldariarekin ere. Dena den ez dute ukatzen esperientzia gisa oso baikorra izan denik bertan pasatako hi-labete t'erdia. Umorea behintzat ez dute galdu eta daukaten sasoiarekin ziur itzuliko direla berriro ere mendi erraldoi horietara.

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g
☎ 88 80 23 LAZKAO

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

Kirol Kantxa: Goierriko kirola Segura Irratian

Martxan da astelehenaz gero Segura irratan, Kirol Kantxa programa berria. Igor Sarriegi lazkaotarra eta Dabid Beramendi tolosarra dira programa aurrera dararmaten gazteak. Astelehene-tik ostegunera, gaueko 10:00etatik 10:30etara eta ostiraletan 9:30etatik 10:00etara, Goierri eta inguruko kirolaren berri entzuteko aukera izango da.

Programa, egun bakoitzean kirol bati dedikatua egongo da nagusiki, baina, gaurkotasunaren arabera alda liteke. Eta, egunero azkeneko 5 minutuetan hainbat kiroltako berriak batu-ko dituzte.


Programaren mamia, in-formazio guztia, euskaraz egingo dute. Euskaraz dakitenak euskaraz elkarriktatu-ko badiutze ere, ez dira euskaldunak bakarrik elkarriktatzera mugatuko. Astelehenetako tertulia, adibidez, gazteleniaz izango da.

"Goierri Errealaz denek hitz egiten dute baina bertako taldeetatik apenaz. Ordiziako rugbya, goi mai-

lan dagoen arren, berataz ez da hitz egiten, nesken futbolaz gutxiago, ezta pelotako klub-arteak ere. Kirolean lan ixila egiten duen jende hauetaz, komunikabide orokorretan lekuri ez dutenentaz, hitz egin nahi dugu", dio Igorrek. "Denetara ez dugu iristerik izango, jubenil eta beheko kategorietara adibidez. Horretarako denbora gehiago beharko litzateke. Baina egun- batean notizia badi- elkarriktatzen bat egingo zaie".

Zaila da inon agertzen ez denaren berri izatea Orduan, dei egiten diete edozein kirol antolatze-ko lane- tan ari direnei beraiekin harremanetan jartzeko, arratsaldero Segura Irratian egongo dira.

Mikel Albisu



Igor eta Dabid, kirolaren berri emateko prest.

Astelehenetan Beasaingo futbol taldeaz izango da programa. Lehenik partiduko fitxa tekniko bat eta gero elkarrikteta bat partiduko edo asteko protagonistarekin. Ondoren tertulia bat egingo da, astelehene-ko egun-rietan Beasainetaz idazten duten kaze- tarien.

Asteartetan ere futbola izango da, baina 3. maila eta preferentea. Lehenik Tolosa eta Urolaren berriak izango dira, eta ondoren Lazkao, Ordizia eta Iintxarenak. Astero protagonista den taldea hartuko da eta berari emango zaio garrantzi gehien, elkarrikteta na-

gusi bat eginez. Ondoren nesken futbolaren berriak emango dira, Goierri 7 talde baitaude. Tolosako areto futbolari ere tarte- a egingo zaio.

Asteazkenetan rugbya, saskibaloia eta eskubaloien berri emango da. Bertan tarte nagusia Ordiziako Rugby taldeak izango du, hau gaurkotasunaren arabera alda balite- ke ere.

Ostegunetan txirrindularitza, pelota, atletismoa, men- dia, herri kirolak eta beste hainbat kirolei buruz hitz egingo da. Ski denboraldian, pisten egoeraren berri ere emango da.

Ostiraletan, asteburuari begira egingo da, kirol guztie- tan egongo denaren berri, futbol talde nagusien jarraipen zehatzagoarekin, alineazioak etabar. Batez ere etxean jo- katz- en diren partiduei emango zaie garrantzia, jendea zelaira joateko animatzeko asmoz edo. Beste kirol- etan antolatzen diren lasterketa, txapelketa etabarrei ere garrantzia emango zaie.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
88 87 02
BEASAIN



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
88 11 94
ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



Alkartasuna Lizeoko ikasleak 1976 urte inguruan

Aitor Asurmendi zegamarrak aspalditik zuen argazki hau argitaratzeko gogoia. Azkenean hemen daude 1966an jaiotako hainbat goierritar, denak ere Alkartasuna Lizeoko ikasleak.

Zutik: Andres Moneo (B), Joxe Kruz Intxausti (B), Peio Otamendi (B), Mikel Dorronsoro (B), Aitor Agirre (I), Julen Arina (B), Antton Aramendia (Z), Astoa, Joxe Mari Albisu (L), Xabier Jimenez (B), Xabino Azurmedi (Z), Aitor Asurmendi (Z), Mikel Albisu (L), Manu Arizkorreta (Z) eta Igor Murua (O).

Makurtuta: Bittor Gutierrez (B) eta Alberto Eskisabel (L).

Belauneko atzean: Joxe Migel Aldanondo (S), Aia Gastesi (B), Xabier Lasa (O), Joxe Jabier Mendizabal (B) (atzera begira), Patxi Beiztegi (B), Xabier Sarriegi (L), eta Iñaki Eskisabel (O).

Aurrean: Imanol Arratibel (B) (atzera begira), Harri Garmendia (B) (etzanda), Xabier Carnicer (B) eta Imanol Urrestarazu (L).

(B): Beasain, (I): Idiazabal, (L): Lazkao, (S): Segura, (O): Olaberria, (Z): Zegama



Xikel

ARMAIRU
ENPOTRATUAK

NEVES

BANATZAILEA

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala

Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN

Giro jator eta atsegina



BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaille ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA

ORDIZIAN

IMAZ OPTIKA

- ✗ Lentillak (mota guztiak)
- ✗ Eguzkitako eta graduatutako betaurrekoak
- ✗ Jubilatuentzat promozioa

Barometroak, termometroak eta lupak

Urdaneta, 14

88 12 42





ZUREMOTO, C. B.

GAS GAS banatzaile ofiziala

Hiribarren Atze Poligonoa, 1

88 39 03


LAZKAO



*Aterki eta poltsak, bidaietako artikulua,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...*

SAN INAZIO, 2

BEASAIN



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaneko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaiak eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.



**Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**





1940ko Beasain Futbol Taldea

Tolosa eskualdeko txapeldun izan zen 1940an Beasain Futbol Taldea. Karmen Arsuagak utzi digu argazkia. Txapelketa irabazi zuten hamaikako titularra hauxe duzue:

Zutik: 'Palanke' Martinez, Cacho, Antonio Aranburu 'Belauste', Pako Elzo, Valdivielso, Benjamin Esnaola eta Aristeo Ruiz.

Makurtuta: Txetxin Iruretagoiena, Damaso Ruiz de Asua, Uria eta Jose Mari Zabaleta.



- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Josegi, 16

88 65 00

LAZKAO

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Mairidreak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta osagaiak

M. Zeberio
88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

96 - 97 KIROL EKINTZAK

AEROBIC-a

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 9-10, 10-11, 15-16, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.
Astearte eta ostegunean, 15-16, 19-20 eta 20-21etan.

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19-20etan.

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenean 16-17etan.
Ostiralean 12-13etan.

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan.
Astelehen, asteazken eta ostiralean 20-21etan.
Astearte eta ostegunean 20-21etan.

JUDO

Astelehen eta asteazkenean 17-18 eta 18-19etan.

GIMNASIA ERRITMIKO eta PSIKOMOTRIZITATEA

Astelehen eta asteazkenean 17-18etan.
Astearte eta ostegunean 17-18 eta 18-19etan.



88 93 33

ORDIZIA

88 93 53

GOIERRIKO GOIZTIRI EUSKALTEGIAK

**EUSKARA IKASI ALA HOBETU NAHI AL DUZU? GOIERRIKO
'GOIZTIRI' AEK-k, HONAKO HAU ESKEINTZEN DIZU:**



- ✓ **ORDUTEGI MALGUAK:** Goiz, eguerdi, arratsalde zein gauekoak.
- ✓ **ERRITMO EZBERDINAK:** 2, 3, 4 edo 5 ordukoak. Baina kontuan hartu euskalduntze prozesua arrakastaz burutzeko trinkotasuna eta iraunkortasuna funtsezkoak direla, beraz gure euskaltegietan erritmo ezberdinetan ikas badaiteke ere, ikastaro intentsiboenak izango dira zuretzat errentagarriagoak.
- ✓ **ZURETZAT EGOKITUTAKO METODOLOGIA:** Kultur sorkuntzan oinarritua. Eguneroko komunikazio egoeretan jartzen dira ikasleak, komunikazio arrakastatsua lor dezaten tresnak jarritz.
- ✓ **BEHAR BEREZIEI ERANTZUTEKO PREST ERE BAGAUDE:** Euskaldunzahar bazara, baina alfabetatu beharra baduzu, Hizkuntz Eskakizunik bete behar baduzu EGA; Hobekuntza eta abar.



ETA HONETAZ GAIN KLASETIK KANPOKO EKINTZAK: Txangoak, bisitaldi kulturalak, asteburuko irteerak...

EUSKAL HERRIA EUSKALTEGI BIHURTU NAHI DUGU

ORDIZIA: SANTA ANA IKASTETXEA TEL. 88 91 74
BEASAIN: KALE NAGUSIA 5-3 TEL. 88 93 40
LAZKAO: ELOSEGI KALEA 16-2. (ANSOATEGI) TEL. 88 93 40